

## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

Ordizian, **2021eko otsailaren 25ean**, udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZORDEA**, **ohiko deialdian**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **25 de febrero de 2021** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

#### **BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Jon Ander Caballero Zubelzu	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

#### **BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Maitane Alvarez Garziandia EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

#### **IDAZKARIA**

Xabier de la Mota Vazquez

### **BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

#### **AZTERTUTAKO GAIAK**


##### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2021eko otsailaren 11ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Samperio kaleko 9 zenbakia eraisteko baimena ematea.
3. Kontu ematea. I.O.M borondatezko eszedentzian deklaratzeko 2021eko otsailaren 22tik (hau barne) Ertzaintzaren praktikaldiak irauten duen bitartean. (2021/0180. Dekretua)
- 4.- Kontu ematea. Gipuzkoako Foru Aldundiari A.L.P. kontu-hartzaile izendatzeko eskaera (2021/0141. Dekretua)
- 5.- Zenbait txosten eta eskaera.
  - 5.1.- COVID19 neurrien informazioa
  - 5.2.- 2020ko erosketa bonuen bigarren Kanpainari buruzko informazioa.

#### **ASUNTOS TRATADOS**

##### **ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

- 1.- *Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 11 de febrero de 2021.*
- 2.- *Concesión de licencia de derribo de Samperio nº 9.*
- 3.- *Dación de cuenta. Declaración en excedencia voluntaria de I.O.M. desde el 22 de febrero (inclusive) mientras dure el periodo de prácticas en la Ertzaintza (Decreto 2021/01180).*
- 4.- *Dación de cuenta. Solicitud a la Diputación Foral de Gipuzkoa de nombramiento como interventora de A.L.P. (Decreto 2021/0141)*
- 5.- *Informes y solicitudes varias.*
  - 5.1. *Información sobre las medidas por la COVID19.*
  - 5.2. *Información sobre la segunda campaña de bonos de compra del 2020*



**Ordiziako Udala**

2021ITGB0004

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**


- .- Ordizia Lantzen, SAREN aurkako erreklamazioa.
- .- Gizarte Ongizateko Aholku Batzordea.
- .- Hegazti-gripeari buruzko galdera.
- .- Web orrian ez direla albiste guztiak agertzen.
- .- Lan-osasun eta segurtasun batzordearen deialdia.
- .- Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoa berritzeko eskaera.
- .- Osasun Batzordearen eraketan aurrera egin beharko litzatekeen aztertzea.
- .- Foru-funtsa azkenean nola geratu da
- .- Gogorarazi du aurreko Batzarrean udalaren gehienezko zorpetze muga zein zen galdetu

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan**

**AMAIERA ORDUA: 14:15ean**





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2021eko otsailaren 11ko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2021eko otsailaren 11ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

**1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 11 de febrero de 2021.**

Propuesta

**Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 11 de febrero de 2021.**

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Samperio kaleko 9 zenbakia eraisteko baimena ematea**

Proposamena

PISUZAHAR ELORGA S.L ordezkarari gisa Felix Garcia-k eskatuta izapidetutako espediente, SAMPERIO kaleko 9. zenbakian dagoen eraikina eraisteko baimena eskatuz. Horretarako honako hau aurkeztu du: SAMPERIO kaleko 9. zenbakiko eraikina eraisteko proiektua. EHAE Oren bisatua, 2020/12/15. E.S.: A/20-03732.

Udal arkitektoaren txosten teknikoa, 2021eko otsailaren 23koa.

Hori guztia eta Obra eta Hirigintza Delegaritzaren 2021ko otsailaren 24ko aldeko irizpena ikusita, honako hau proposatzen da.

**AKORDIO PROIEKTUA**

**PISUZAHAR ELORGA SLk** eskatu duen eraisp

**2.- Concesión de licencia de derribo de Samperio nº 9.**

Propuesta


*El expediente tramitado a instancias de Felix Garcia en representación de PISUZAHAR ELORGA S.L. para derribo del edificio sito en SAMPERIO kalea 9. Para ello presenta: Proyecto de derribo edificio Samperio kalea 9. Visado COAVN 15/12/2020 R.E. : A/20-03732.*

*El informe técnico del Arquitecto Municipal de fecha 23 de febrero de 2021.*

*A la vista de todo ello y el dictamen favorable de la Delegación de Obras y Urbanismo de fecha 24 de febrero de 2021, se propone el siguiente:*

**PROYECTO DE ACUERDO:**

*Conceder a la PISUZAHAR ELORGA S.L. La*



## Ordiziako Udala

baimena ematea, ondorengo baldintza hauek betetzekotan:

- **Honako agiri hauek ekarri beharko dituzte obra hasi aurretik:**
  - a. Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.
  - b. Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia), mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonetan eragindako kalteei aurre egiteko dena.
  - c. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza, **13823,04** eurokoa.
  - d. **6.000** euroko fidantza aurkeztuko du, eraispeneko lanetan urbanizazioari eragin ditzakeen kalteak konponduko direla bermatzeko.

Bermearen zenbatekoa Udalak duen kontu zenbakian jarri beharko da obrak hasi aurretik, kontu zenbakia hau da:

**Kontu zkia: 20955073041060024857**

▪ **Obrek irauten duten bitartean kontuan hartu beharko da.**

- a) Aurkeztutako agiri osagarriei dagokienez, oinezkoen segurtasun neurriei, sarbide eta irteera eremuei, material pilaketan zamarako lursail erreserbei dagozkionak eta obrak burutzeko beharrezkoa den guztia eta kaleari eragin diezaizkien edozein gauza Udalarekin adostuko da in situ obrak hasi aurretik.
- b) Obra horiei ekin aurretik, egunaren eta orduaren berri eman beharko zaio Bulego Teknikoari eta Gipuzkoako Urak-i, horrela udal zerbitzuek babestu egingo dituzte eraispen lanek eragin ditzakeen izaera orokorreko instalazioak.
- c) Eraispen lanak dirauten bitartean, mahuka bat eduki beharko da, kontagailuarekin eta gutxieneko ebakidurarekin ( $\varnothing$  45 mm/mm.), hondakinak garbitzeko eta horrela, harrotutako hautsak sortutako eragozpenak arintzeko.
- d) Enpresak bere langileak baliatu beharko ditu obrak irauten duen bitartean segurtasuna bermatzeko.

e) Eraispen fase honetan jarduera eremua

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAACSDMS.yrMV>

2021ITGB0004

*licencia de derribo que solicita, condicionada al cumplimiento de los siguientes extremos:*

• **Previo al inicio de obra se deberá presentar en estas dependencias:**


- a. *La notificación del nombramiento de la dirección facultativa de la obra.*
- b. *El justificante (fotocopia) de la póliza de seguro, que cubra los riesgos de daños a edificios colindantes, bienes y personas.*
- c. *La fianza requerida en el Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por la cantidad de **13823,04** euro.*
- d. *Presentará una fianza de **6.000** € para garantizar la reparación de los daños que pueda ocasionar a la urbanización durante el derribo*

*Dicho importe deberá depositarse **previo al inicio de obra** en la cuenta del Ayuntamiento de Ordizia:*

**Nº Cta.: 20955073041060024857**

▪ **Durante las obras deberá tenerse en cuenta:**

- a) *En relación a la documentación complementaria aportada, en referencia a las medidas de seguridad de peatones, zonas de acceso y salidas, reservas de terreno para carga de material y acopios, y todo aquello que se estime necesario para la ejecución de las obras y que pueda suponer afección alguna sobre la vía pública, se acordarán in situ con el Ayuntamiento antes del inicio de las obras.*
- b) *Previo al comienzo de estas obras, se comunicará el día y la hora a esta Oficina Técnica y a Gipuzkoako Urak a fin de que los distintos servicios puedan neutralizar aquellas instalaciones de carácter general que puedan verse afectadas por el derribo.*
- c) *Mientras se realizan las labores de derribo, se dispondrá de una manguera, con contador, de sección suficiente ( $\varnothing$  45 mm) a fin de poder regar los escombros y paliar así las posibles molestias que se puedan ocasionar por el polvo desprendido.*
- d) *Se deberá disponer personal propio que pueda garantizar la seguridad durante el transcurso de la obra.*
- e) *El ámbito de actuación en esta fase de derribo, deberá ser señalado*



## Ordiziako Udala

behar bezala seinalaztatu beharko da eta Udaltzaingoarekin kontrastatu beharko da.


- f) Hesiak jartzeko Udaltzaingoarean jarraibideak bete beharko dira.
- g) NTE-ADD Eraispenak eta bat datorren gainerako Araudian ezarritakoa hartu beharko da kontuan.
- h) Oinezkoei eragiten duen gunean ondo argituta egon beharko da denbora guztian.
- i) Inguruko kale guztiak eta bere urbanizazioak, eraispenak irauten duen bitartean eta baita gero ere, segurtasun eta sendotasun baldintza onenetan geratu beharko du.
- j) Eraispen lanei ekin aurretik, arratoiak akabatzeko enpresa batekin jarriko dira harremanetan, eraikina horiengandik babesteko.
- k) Obra seinalaztatu eta babesteko behar diren baliabide guztiak izango ditu enpresak, eta Udaltzaingoarean eskura jarriko ditu hala behar dituztenean.
- l) Proiektuan azaldutako segurtasun, babes eta higiene neurri guztiak hartuko dira, baita gai horri buruz indarrean dauden ordenantza eta araudiak betetzetik eratorriak ere, uneoro eraikin eta mugakide diren instalazioen sendotasun eta segurtasuna bermatu beharko da.
- m) Eraisteko hiri-altzariak kendu behar badira, sustatzailearen kontu izango da, eta obrak amaitzean berriro ipini beharko ditu behar bezala utziz.
- n) Eraispeneko hondakinak kentzeko eta kudeatzeko lanak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege dekretuak eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera egingo da.
- o) Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza 13823,04 eurokoa da. Fidantza hau obrak egiten hasi aurretik ordaindu beharko da. Obligaziodun pertsonak eskaera egin ondoren itzuliko da fidantza eta obran sortutako hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duten agiriak

2021ITGB0004

*adecuadamente y contrastado con la Policía Municipal.*

- f) *La colocación del vallado se coordinará con la Policía Municipal.*
- g) *Se tendrá en cuenta lo establecido en las NTE-ADD Demoliciones y demás Normativa concordante.*
- h) *Se tendrá bien iluminado en todo momento la zona de afección a peatones*
- i) *Toda la vía pública circundante y su urbanización, mientras y después de completar el derribo deberá quedar en óptimas condiciones de seguridad y solidez.*
- j) *Días antes del comienzo del derribo, se contactará con una empresa de desratización, a fin de tratar el edificio contra roedores.*
- k) *La empresa dispondrá de todos los medios necesarios para señalar y proteger la obra, los cuales pondrá a disposición de la Policía Municipal en caso de necesidad.*
- l) *Se adoptarán todas las medidas de seguridad, protección e higiene contempladas en el proyecto, así como las derivadas del cumplimiento de las ordenanzas y normativa vigentes en la materia, garantizándose en todo momento la estabilidad y seguridad de edificios e instalaciones colindantes.*
- m) *Si para el derribo es preciso retirar parte del mobiliario urbano, será por cuenta del promotor, debiendo restituir el mismo en perfectas condiciones una vez acabadas las obras.*
- n) *La retirada y gestión de los residuos de la demolición se realizará de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, y Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por los que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.*
- o) *El importe de la fianza requerida en el Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, es de **13823,04**euros. Dicha fianza deberá ser depositada con carácter previo al inicio de las obras. La devolución se producirá previa solicitud de la persona obligada y tras la acreditación documental de la correcta gestión de los residuos generados en la obra de acuerdo con lo establecido en el art. 6 del Decreto.*
- p) *Finalizadas las obras, se expedirá el correspondiente Certificado Fin de Obra.*

▪ **Asimismo, las obras deberán ejecutarse con observancia a las siguientes**



## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

aurkeztu ondoren, dekretuaren 6. artikuluan ezartzen den moduan.


p) Obrak bukatutakoan, dagokion Obra Bukaerako Ziurtagiria aurkeztu beharko da.

### ▪ Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:

1. Obrek irauten duten bitartean, seinaleztapen-, babes- eta segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, istripurik gerta ez dadin. Bideek nahiz espaloiek, bertatik ibiltzeko moduan eta babestuta egon beharko dute Udaltzaingoaren jarraibideak betez; era berean, kaleak moztu eta bere seinaleak ipintzerakoan, beraien jarraibideak bete beharko dira.
2. Obren kontratista esleipendun guztiak egunean izango dituzte Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.
3. Lan guztiak egiteko, oinezkoen eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz egingo dira.
4. Laneko Osasuna eta Segurtasunari buruz indarrean dauden Lege-Arau guztiak beteko dira, bereziki 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena; baita bere aldaketak, eta hauekin bat datozen xedapenak eta aplikatu daitezkeen prebentzio arloko beste edozein arau ere.
5. Obran enpresa batek baino gehiagok edo hainbat langile autonomok parte hartzen badute, SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE bat izendatu beharko da.
6. Lanek dirauten bitartean, saihestu egingo da objektuak edo partikulak bide publikora jaurtitzea, eta neurri egokiak hartuko dira oinezkoek eta ibilgailuek kalterik ez jasateko.
7. **COVID-19**rekin kutsatzeko arriskua dagoenez, lanaldia dirauten bitartean ez da eraikineko bizilagunekin kontakturik izango. Lan eremura, lanaldiaren hasieran eta amaieran sartu eta atera beharko da, eta

### medidas:

1. *Durante las obras, deberá tomar las medidas de señalización protección y seguridad necesarias para evitar accidentes. Manteniendo las aceras y viales transitables y protegidos, de acuerdo con la Normativa de la Policía Municipal. Asimismo, deberán seguir sus indicaciones para los cortes de calle y señalización de los mismos.*
2. *Todo contratista adjudicatario de las obras, estará al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.*
3. *Todos los trabajos se realizarán tomando las medidas necesarias para garantizar la seguridad de los peatones y trabajadores.*
4. *Se cumplirá con todas Normas Legales Vigentes sobre Salud y Seguridad en el Trabajo, en particular el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención; así como sus modificaciones, disposiciones concordantes y cualquier otra norma de ámbito preventivo aplicable.*
5. *Si en la obra participan más de una empresa o varios trabajadores autónomos se deberá designar un COORDINADOR DE SEGURIDAD Y SALUD.*
6. *Durante los trabajos se evitará la proyección de objetos o partículas a la vía pública, tomando las medidas oportunas para evitar que los viandantes y vehículos se vean afectados por la caída de objetos.*
7. *Debido al riesgo de contagio por la COVID-19, se evitará durante el desarrollo de la jornada, el contacto con los vecinos del inmueble. El acceso y salida de la zona de trabajo, se producirá al inicio y a la finalización de la jornada laboral y los trabajadores adoptarán las medidas de prevención e higiene frente al COVID-19 indicadas por las autoridades sanitarias.*
8. *Si en la obra aparecen materiales que*



## Ordiziako Udala

langileek prebentzio eta higiene neurriak hartuko dituzte **COVID-19**ren aurrean, osasun agintariak adierazitakoak.

8. Obran AMIANTOA duten materialak agertzen badira, obra gelditu egin beharko da, eta martxoaren 31ko, 396/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatuko dira, AMIANTOAREN eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.
9. Eraispenerako hondakinak kentzeko eta kudeatzeko lanak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege dekretuak eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera egingo da.
10. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza **1089,31** eurokoa da. Fidantza hau obrak egiten hasi aurretik ordaindu beharko da. Obligaziodun pertsonak eskaera egin ondoren itzuliko da fidantza eta obran sortutako hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren, dekretuaren 6. artikuluan ezartzen den moduan.

- **Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:**

a) Obrak egiteko ordutegia, goizeko 8etatik gaueko 8etara izango da lan-egunetan eta goizeko 8etatik eguerdiko 2etara jai-bezperetan. Jaiegunetan ezingo da lanik egin.

b) Obrak baimena eman eta 2 hilabeteren barruan hasi beharko dira. Bukatu, berriz, 6 hilabeteko epean bukatuta behar dute. Gehenez hilabetez eten daiteke obra. Epe horietako edozein beteko ez balitz, baimena iraungita geratuko litzateke.

c) Bide-seinale alternatiboak behar badira, euskaraz eta gazteleraz egingo dira. Eta euskara hutsez idatziko dira, berriz, bi hizkuntzetan antzeko grafia duten hitzak eta esamoldeak edota piktogramen bidez egiten direnak (Euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzaren 18. artikulua). Udalak itzulpenetarako doako zerbitzua ematen du: 943805622.

- **Obrak bukatutakoan, dagokion Obrak**

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAACSDMS.yrMV>

2021ITGB0004  
*contengan AMIANTO, se deberá parar la obra y serán gestionados según el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al AMIANTO.*

9. *La retirada y gestión de los residuos de la demolición se realizará de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, y Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por los que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.*

10. *El importe de la fianza requerida en el Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, es de **13823,04** euros. Dicha fianza deberá ser depositada con carácter previo al inicio de las obras. La devolución se producirá previa solicitud de la persona obligada y tras la acreditación documental de la correcta gestión de los residuos generados en la obra de acuerdo con lo establecido en el art. 6 del Decreto.*


- **Asimismo deberá tener en cuenta otras consideraciones:**

a) *El horario permitido para ejecución de obras es de 8:00 horas a 20:00 horas los días laborables y de 8:00 horas a 14:00 horas los sábados. En días festivos no se podrán ejecutar.*

b) *Las obras se iniciarán dentro del plazo de 3 meses a contar desde la expedición de su licencia y deberá ser finalizadas en su totalidad en el plazo de 6 meses. El plazo de interrupción máxima será de un mes. El incumplimiento de cualquiera de estos plazos supondrá caducidad de la licencia.*

c) *Cuando sea necesaria la señalización vial alternativa, la misma se realizará en euskera y castellano, y se utilizará el euskera en caso de grafía similar en los dos idiomas así como en caso de anuncios que utilicen pictogramas / símbolos internacionales (Artículo 18 de la ordenanza de normalización del uso del euskera). Servicio gratuito de traducción del Ayuntamiento: 943805622*

- **Finalizadas las obras, se entregará el correspondiente Certificado Fin de Obra**



## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

### Bukaerako Egiaztagiria aurkeztuko da.

Lizentzi hau eskuratzeko aurretik udal zergak eta tasak ordaindu beharko dira.

Akordio hau doakionari jakinaraztea.

*Esta licencia queda condicionada al previo pago de los correspondientes impuestos y tasas municipales*

*Notifíquese el presente Acuerdo a las personas interesadas.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 4 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3. Kontu ematea. I.O.M borondatezko eszedentzian deklaratzeko 2021eko otsailaren 22tik (hau barne) Ertzaintzaren praktikaldiak irauten duen bitartean. (2021/0180. Dekretua)**


**3.- Dación de cuenta. Declaración en excedencia voluntaria de I.O.M. desde el 22 de febrero (inclusive) mientras dure el periodo de prácticas en la Ertzaintza (Decreto 2021/01180).**

### 2021/0180. DEKRETUA

#### HONAKO HAU IKUSITA:

- I. 2021eko otsailaren 6an, Ibai Olazabal Martínezek, udaltzaingoaren oinarriko eskalako agente-plaza betetzen duen karrerako funtzionarioak, idatzia aurkeztu zuen udal honetan, poliziak hautatzeko prozesu bateratuan parte hartu ondoren, Ertzaintzaren kidegoan plaza lortu duela eta prestakuntza-ikastaroa 2021eko otsailaren 23an hasiko duela jakinaraziz.
- II. Idazki horretan, eta beste polizia-kidego batean sartzen denez, segidan aipatzen diren eskaerak egiten ditu:
  - 1) *Norberaren gauzetarako ordaindu gabeko baimena ematea, Ordiziahitz akordioarekin bat etorritik, plaza berriaren praktikaldiak irauten duen aldirako, eta amaitu ondoren eta Ertzaintzako kidego horretan sartzen bada, beste administrazio publiko batean zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia-egoera administratiboan deklaratzeko.*
  - 2) *Aurreko eskaera zilegi izango ez balitz, borondatezko eszedentzia-egoeran deklaratzeko beste administrazio publiko batean zerbitzua emateagatik 2021eko otsailaren 22tik (hau barne) eta praktikaldirako ezarritako denboran, hau da urte beteko epean.*
  - 3) *Norberaren gauzetarako ordaindu gabeko baimena ematen ez bada, lanpostua gordetzeko eskubidea izatea praktikaldia amaitu arte, eta praktikaldi hori gainditu ezean, funtzionarioari lanpostua itzultzeko aukera ematea.*





## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

- III. Udaleko AOTak txostena egin du eskaeraren gainean, non ondorioztatzen den, ordaindugabeko baimenaren eskaera horri dagokionez, Ordiziahitz akordioaren 55.3 artikulua ("ordaindugabeko baimena") aplikatzeak kontraeskanak sor ditzakeela: baimena Administrazio berean praktikak egiteko baino ez litzatekeela aplikatu behar, funtzionarioa beste kidego edo eskala batean sartzen bada, jatorrizko funtzionario-harremana azkentzen delakoo eta, ondorioz, ordaindu gabeko baimenaren kalifikazioa zaila delako. Eta, gainera, Ordiziahitzen euskarazko bertsioak goragoko sailkapen-taldeetan edo azpitaldeetan sartzeko ordaindu gabeko baimenak aipatzen ditu, eta kasu honetan ez da goragoko sailkapeneko talde edo azpitaldetara joango.
- IV. Borondateko eszedentzia-egoeran deklaratzeari dagokionez, eta aipatutako txostenean azaltzen den moduan, interés partikularragatiko borondatezko eszedentzian deklaratzeko aukera dago praktikaldiak irauten duen denboran.
- V. Beste administrazio publiko batean zerbitzua emateagatik dagokion eszedentzia ez da praktikaldirako aplikagarria, hori gainditu arte ez baitu karrerako funtzionario izaera lortuko.
- VI. Edonola ere, plaza berriaren praktikaldiak gainditu ondoren Ertzaintzako kidego horretan sartzen bada, beste administrazio publiko batean zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia-egoera administratiboan deklaratzeko bidezkoa da.
- VII. Hirugarren eskaerari dagokionez, lanpostua gordetzeko eskubidea, bere horretan, ez dago legean edo hitzarmenean jasota aipatutako kasuetatik at.
- VIII. Hori guztia ikusita,

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

1. Ibai Olazabal Martínezek Ertzaintzaren kidegoan praktikaldiak irauten duen aldirako norberaren gauzetarako ordaindu gabeko baimena emateko egindako eskaera EZ ONARTZEA.
2. Ibai Olazabal Martínez interes partikularragatiko borondatezko eszedentzian deklaratzeko 2021eko otsailaren 22tik (hau barne) eta Ertzaintzaren kidegoan praktikaldiak irauten duen bitartean.
3. Ibai Olazabal Martínez plaza berriaren praktikaldiak gainditu ondoren Ertzaintzako kidego horretan sartzen bada, beste administrazio publiko batean zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia-egoera administratiboan deklaratzeko dagokio, momentua iristean interesatuak hala eskatuz gero.
4. Dekretu hau interesatuari jakinaraztea.


### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Kontu eman da, eta TGBa jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

**4.- Kontu ematea. Gipuzkoako Foru Aldundiari A.L.P. kontu-hartzaile izendatzeko eskaera (2021/0141. Dekretua)**

**4.- Dación de cuenta. Solicitud a la Diputación Foral de Gipuzkoa de nombramiento como interventora de A.L.P. (Decreto 2021/0141)**

Proposamena

Propuesta


### **2021/0228. DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

- I. Ordiziako Udal honetako Kontu-hartzaitza lanpostuan izendatua dagoen Mikel Zubizarreta Elizegi bitarteko funtzionarioa gaixotasun bajaran dagoela 2019ko uztailaren bukaeratik. 2021eko urtarrilean bete zuen urte eta erdiko gehieneko iraupena, baina azkenean ebakuntza atzeratu zaio eta ezgaitasuna baloratzeko prozesua zabaldu zaionez, bajaran jarraitzen duela.
- II. Ordudanik, kontu-hartzaile lanpostuaren eginkizunak betetzeko legeak agintzen duen prozedura jarri duela martxan Ordiziako Udalak eta Gaikuntza Nazionalako funtzionarioen metaketa bidez postua hornitzea lortu dela, beti ere, jardunaldiaren %30eko mugarekin: Lioba Maiza Rekondok, artean Eibarko Udaleko Diruzainak, Kontu-hartzaitza lanpostua bete zuen metaketan 2019ko abuztutik abendura, eta ondoren, artean gaikuntza nazionalako funtzionarioei erreserbatutako Eibarko Udaleko Kontu-hartzailearen postua betetzen zuen bitarteko funtzionarioa zen David García Castro jaunak bete zuen metaketa bidez kontu-hartzaile postua 2020ko urtarriletik abendura.
- III. 2020ko abenduan Garcia jaunak metaketari uko egin ziola, Irungo Udalean teknikari plaza erdietsi eta Eibarko kontuhartzaitza uzterarekin batera. Orduan, IVAPera burutu zen eskaera (atxiktizen da) Kontu-hartzaile postua hornitzeko, baina ez zen interesaturik agertu. Ondoren, Aratxebaletako funtzio horietarako berriazko hautaketa-prozesutik eratorritako lan-poltsa eskatu zitzaiola udal horri, baina hor ere denak lanean zeudela adierazi zen.
- IV. Azkenik, eskaera egin zela Donostiako Udalera bertako kontu-hartzaileorde den Lioba Maiza Rekondo andreari metaketa araubidean lanpostua betetzeko baimentzeko eskatuz, baina Maiza andreak baiezkoa eman bazuen ere, Donostiako Udalak ez duela dagokion baimena eman.
- V. Horiek horrela, eta kontuan hartuta aurretik egindako urrats guztiak hutsalak izen direla eta premiazkoa dela Kontu-hartzaile lanpostua betetzea, Zubizarreta jauna gaixotasun bajatik lanera itzuli arte, ALOÑA LANDA PIEDRAFITA Andrea (72460529H NAN), Ordiziako Udaleko kontuhartzaitzako teknikaria den bitarteko funtzionarioa, izendatzea proposatu zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, bajaran jarraitzen duen bitarteko kontu-hartzailea itzuli bitartean. Landa andrea aldi baterako programa baten bitartez izendatua izan zen A/20-00628 sarrera erregistro bidez IVAPek helarazitako zerrendatik. A1 talderako beharrezkoa den tituluduna da, eta 4 HE dauka.
- VI. Gipuzkoako Foru Aldundiak Landa andrea bitarteko kontuhartzaile izendatu zuen martxoaren 1eko 2021/327 Foru Agindu bidez, martxoaren 1eko ondorioekin eta Zubizarreta jauna gaixotasun bajatik lanera itzuli arte.
- VII. Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 59. Artikuluaren arabera Administrazio Publikoetako funtzionarioak (besteak beste) borondatezko lan-utzialdian egon daitezke, eta egoera horretan egongo dira (aipatutako legeko 61.1.a) artikuluaren arabera) *“edozein Administrazio Publikotako beste Kidego edo Eskala batean jarduneko zerbitzuan ari direnean [...] eta, lege honen arabera, beste egoerarik ez dagokienean”*.
- VIII. Aipatu artikuluei jarraiki, eta Landa andrearen orain arte izan duen aldi baterako izendapenari dagokionez – Kontuhartzaitza Sailean aldi baterako programa – langileak lan-utzialdian egoteko eskatu du kontuhartzaitzaz diharduen bitartean.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAACSDMS.yrMV>

10



## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

- IX. Zentzu horretan, aurrera eramaten ari den programa etetea ere komeni da, Landa andreak kontuhartzaile izateari uzten dionean berriro martxan jarri dadin eta programa bere osotasunean burutu dadin.
- X. Horiek guztiak horrala,

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

1. Aloña Landa Piedrafita andrea Ordiziako Udaleko Kontuhartzaitza -bigarren mailakoa- lanposturako Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko departamentuak egindako izendapena berrestea.
2. Aloña Landa Piedrafitak egun udalean duen izendapenari dagokionez, lan-utzialdi egoeran aitortzea edozein administrazio publikoko beste eskala batean zerbitzuan aritzeagatik eta lanpostua gordez, Ordiziako Udaleko bitarteko kontuhartzaile lanpostuan diharduen bitartean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 61.1.a) artikuluari jarraiki.
3. Aipatu Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 61.1.a) artikuluaen arabera, kontuhartzaile-izendapena eten ondoren eta hogeita hamar eguneko epearen barruan jarduneko zerbitzuan berriro sartzea eskatu beharko du funtzionarioak; eskabidea ez egitea gertatuz gero, interes partikularreko borondatezko lan-utzialdi egoerakotzat deklaratu izango da, horretarako aipatu le-gean ezartzen diren eskakizunak betetzen badira.
4. Kontuhartzaitza Sailean aldi baterako programa etetea, Landa andreak bitarteko kontuhartzaile lanpostuan diharduen bitartean.
5. Dekretu hau Landa andreari jakinaraztea.

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Kontu eman da, eta TGBa jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **5.- Zenbait txosten eta eskaera.**

- 5.1.- COVID19 neurriei buruzko informazioa  
5.2.- 2020ko erosketa bonuen bigarren kanpainari buruzko informazioa.

5.1.-

#### Alkate jaunak

Azaldu du Informazio guztia bildu dutela eta Pendrive, CD edo beste plataforma baten bidez helaraziko zaie. Garbiketan eta babes materialetan zenbateko gastua egon den, hori faltako litzateke. Maiatza erdialdera arteko informazioa iritsi da uztaileko brotea barne.  
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAACSDMS.yrMV>


#### **5.- Informes y solicitudes varias**

5.1.-

#### Sr. Alcalde

*Comenta que han recogido toda la información y se les hará llegar a través de Pendrive, CD u otra plataforma. Sólo faltaría el gasto en materiales de limpieza y protección, que están con liquidación. La información llega hasta mediados de mayo, incluyendo el brote de julio. Se informa sobre las*

11



## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

Neurriei buruzko informazioa eman da, eta non aurkitu daitekeen.

*medidas y dónde encontrarlas.*

.....

.....

5.2.-

5.2.-

### Alkate jaunak

### Sr. Alcalde

Bono kanpainari buruzko informazioa eman du. Bigarren kanpaina hobea izan da, erdiak baino zerbait gehiago erabili dira. 89 partaide egon dira, eta 13tan ez dira erabili. Inkesta bat egingo da herritarren artean bonoei buruzkoa.

*Ha informado sobre la campaña del bono. La segunda campaña ha sido mejor, se han utilizado algo más de la mitad. Ha habido 89 participantes y en 13 no han sido utilizados. Se realizará una encuesta a la ciudadanía sobre dichos bonos.*

### Sukia andreak

### Sukia andreak

Galdetu du bonoak merkatua arintzeko eskatu zirenez, zer efektu izan duten.

*Pregunta qué efecto han tenido las peticiones de bonos para agilizar el mercado.*

### Alkate jaunak

### Sr. Alcalde

Erantzun du ez dutela datu zehatzik, baina elkarteekin hitz egin dutela, eta gehienak uste baino hobeto pasa dutela, batez ere denbora guztian irekita egoteko aukera izan dutenak. Lagungarri izan da kasu batzuetan itxiera perimetrala, jende asko herrian erostera behartu baitu horrek.

*Responde que no tienen datos concretos, pero que han hablado con las asociaciones y que la mayoría lo han llevado mejor de lo previsto, sobre todo los que han podido estar abiertos todo el tiempo. Ha ayudado que en algunos casos el cierre perimetral haya obligado a muchas personas a comprar en el pueblo.*

## **Batzordea jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **6.- Galde-erreguak**

### **6.- Ruegos y preguntas.**

#### Ordizia Lantzen, S.Aren aurkako erreklamazioa


*Reclamación contra Ordizia lantzen, S.A.*

#### Alkate jaunak

#### Sre. Alcalde

Azaldu du Filipinak 40-42 jabeekideen elkargoak helegitea jarri duela ORDIZIA LANTZEN, S.A.ren aurka, 400.000 euroko eskaerarekin. Ahalik eta azkarren ari dira lanean helegiteari erantzuteko martxoaren 11 baino lehen, epemuga hori baita. Abokatu bulego batekin lanean dihardute. Peritoxostena eskatu da. Estrategia akordio bat erdiestea da; arrazoia izan dezaketen kasuetan eskaera onartzea, eta arrazoia ez dutenetan ez onartzea edo beste aukera batzuk planteatzea. Edonola ere, ordainduko litzaieke baina konponketak eurek egin beharko dituzte. Deigarria da inoiz ez zaiela ESARBEri, arkitektoei,

*Expone que el Colegio de Propietarios de Filipinak 40-42 ha interpuesto una alegación contra Ordizia Lantzen, S.A. con una solicitud de 400.000 euros. Se trabaja a la mayor brevedad posible para dar respuesta a la alegación antes del 11 de marzo, fecha límite. Trabajan con un bufete de abogados. Se solicita informe pericial. La estrategia es llegar a un acuerdo, aceptar la solicitud en los casos que puedan tener razón y no aceptarla en los que no la tengan o plantear alternativas. En cualquier caso, se les pagaría pero las reparaciones las tendrán que hacer ellos. Llama la atención que nunca se ha reclamado*



## Ordiziako Udala

aparejadoreei edo enpresa eraikitzaileei ezer erreklamatu, ez da ulergarria zergatik ez zaien inoiz komunikaziorik ere bidali.

### Sukia andreak

Aipatu du berak aurreko Administrazio Kontseiluetan san zuela espreski erreklamatu behar zitzaiela.

### Alkate jaunak

Gaineratu du kalte batzuk erreklamatzeko aukera aztertzen ari direla.

### Sukia andreak

Epeak ez daitezela pasa, hori eskatu du, preskripzioa geratuko lukeen jakinarazpen bat egiteko.

.....

### Dubreuil jaunak

Hainbat aipamen egin ditu:

1. Gizarte Ongizateko Aholku Batzordea deitu da?

### Alkate jaunak

Erantzun du ordutegiak zehaztea falta dela, eta ea haiek zer iritzi duten.

### Dubreuil jaunak

Arratsaldeko 18:30ean egitea proposatu du.

.....

2. Hegazti-gripearekin zerbait egin da? Geroz eta udal gehiago eskatzen ari dira animalia horiek erregistratzeko.

### Alkate jaunak

Erantzun du GOIMENekin hitz egingo dela, nahiz eta susmoa den elkarte horretan ofizialki altan emanda daudenak soilik egongo diren.

2021ITGB0004

*nada a ESARBE, a los arquitectos, aparejadores o empresas constructoras, no se entiende por qué nunca se les ha enviado ni tan siquiera comunicación alguna.*

### Sra. Sukia

*Comenta que en los anteriores Consejos de Administración ella dijo que había que reclamarles expresamente.*

### Srs. Alcalde

*Añade que se está estudiando la posibilidad de reclamar algunos daños.*

### Sra. Sukia

*Solicita que no pasen los plazos para hacer una notificación que paralizara la prescripción.*

.....

### El Sr. Dubreuil

*Hace varias preguntas:*

1. *¿Se ha convocado el Consejo de Bienestar Social?*

### Sr. Alcalde

*Responde que faltan por concretar los horarios, a ver cuál es su opinión.*

### Sr. Dubreuil


*Propone hacerlo a las 18:30 de la tarde.*

.....

2. *¿Se ha hecho algo con la gripe Aviar? Hay más Ayuntamientos que están solicitando el registro de estos animales*

### Sr. Alcalde

*Responde que se va a hablar con GOIMEN, aunque se sospecha que en esa asociación sólo estarán los que están oficialmente dados de alta.*



## Ordiziako Udala

2021ITGB0004

3. Web orrian ez dira albiste guztiak agertzen.

Alkate jaunak

Erantzun du oraindik dena ez dagoela igota.

.....

4. Lan-osasun eta segurtasun batzordearen deialdia egin da?

Alkate jaunak

Erantzun du esanez nortzuk egon behar diren aztertzen ari direla.

.....

5. Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoa berritzeko eskatu du. Aurreikusita dauden akzioak bideragarriak diren ikusi behar da, edo aldatu behar diren.

.....

6. Osasun Batzordearen eraketan aurrera egin beharko litzatekeen aztertu behar da.

.....

7. Foru-funtsa azkenean nola geratu da?

Alkate jaunak

Erantzun du 420.000 euro gehiago iritsiko direla azkenean. 2020ko likidazioan izango du eragina.

.....

8. Gogorarazi du aurreko Batzarrean udalaren gehienezko zorpetze muga zein zen galdetu zuela.

3. *No todas las noticias aparecen en la web.*

Sr. Alcalde

*Responde que todavía no está todo subido.*

.....

4. *¿Se ha convocado la comisión de seguridad y salud laboral?*

Sr. Alcalde

*Responde que se está estudiando quiénes deben estar.*

.....

5. *Solicita la renovación del Plan Estratégico de Servicios Sociales. Hay que ver si las acciones previstas son viables o si hay que modificarlas.*

.....

6. *Hay que analizar si habría que avanzar en la constitución del Consejo de Sanidad.*

.....

7. *¿Cómo ha quedado finalmente el Fondo Foral?*

El Sr. Alcalde

*Responde que finalmente llegarán 420.000 euros más. Afectará a la liquidación de 2020.*

.....

8. *Recuerda que en la anterior Junta preguntó cuál era el límite máximo de endeudamiento municipal.*



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatu dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

ALKATEAK / EL ALCALDE

IDAZKARIA / EL SECRETARIO